



## PEDRO MARI ARSUAGA HIL DA

1940-50 hamarkadetan Lehen Mailan aritu zen tolosarra; Real Madrilen jokatu zuen, besteak beste >7

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Igandea  
2009-11-01

VII. URTEA 1.816. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Ahots eta zapore gozoen eszenatoki paregabea izan da Tolosa Goxua

**TOLOSA** Milaka lagunek bisitatu zuten atzo azoka; ikusmin handiena tableta erraldoiak piztu zuen

**41. ABESBATZA LEHIAKETA** Gaur amaituko da jaialdia, sari banaketarekin; zenbait abeslarik azoka ezagutu zuten 5



Behin tableta erraldoia eginda, eta jendeak ikusteko moduan denbora batez eduki ostean, mailuak hartu eta milaka zatitan banatu zuten. ESTI EZEIZA



Jende ugari aritu zen kantuan. E. MAIZ

### Tolosa Kantarik musika ukitua eman dio Tolosa Goxuari

**TOLOSA** Hilabetero bezala antolatu zuten atzo 6

### Santu Guztien Eguna dela-eta lore eskaintza zabala izan da azokan

**TOLOSA** Onddo eta barazki ugari izan ziren salgai, Tolosa Goxuako produktuez gain 2

### 130 lagun inguru bildu dira Asto festaren egunean eginiko asto jatean

**ELDUAIN** Lehen aldiz egin zuten atzo; arrakastatsua izan dela esan dute 6



Herri kirolak ere izan ziren atzo. E. MAIZ



*Gure baserritik, haragia zuzenean etxera*

5 Kg-ko sorta 58€tan (banaketa DOAN)  
Xerrak (hiru mota), haragi xehea, sailheskia, zankarra, gisatua, txuleta.

**Proba ezazu, egin eskaria:**

943-30 43 32 (ordutegia: 9:00-17:00) edo saski@lurlan.org  
Dendak: Boulevard 7 eta San Martin merkatuko C4 postuan (Donostia)




## Eguberri on!



### » Uzturretik

Iraitz Lizarraga

Juxtu-juxtu bainujantzia kentzeko denbora eman digu eta jadanik gabonekin gora eta behera hasi zaizkigu komunikabideak: supermerkatutan polboroiek, lehen flotadoreak zeuden apalak okupatu dituzte; milaka argitxoak josi dituzte hainbat hiriburutako kaleak; gabonetako loteria; xextoen errifak; papanoel gorrien inbasioa...! Aurtengoan ere, maitasuna eta pakea (je,je!) nagusi den sasoi

horretan, mendi tonorren batetara edo irla desertu batetara ihes egiteko gogoak datorkit.

Urtetik urtera ordea, gehiago aurreratzen da istorioa: aurtengoan, Urriaren haseran egin du bere agerpena gabonetako izpirituak; eta badakigu honek zer esan nahi duen: erosi, erosi eta erosi. Aspaldian galdu zuten gabonek euren jatorrizko zentzua: festa pagano izatetik, kristau zeremonia bihurtu zituztenean; baina orain kristautasunaren zentzu hau ere galdu dute, erlijio berriaren, alegia kontsumismo amorratuaren mesedetan.

Gabonekin bezala, beste hainbat ospakizunekin gauza bera gertatu da: zertarako San Valentín eguna, Koloniak, bonboiak eta loreak saltzeko ez bada? Aitaren eguna, amarena... Eta ospakizunekin gutxi balitz, urte sasoi bako-

tzean zer erosi behar dugun ere markatzen digute: iraillean, esate baterako, «Vuelta al cole»: liburuak, eskolarako materiala, baina baita ere, txandak berria, zapatilak, motxila... Aitzakiarik ez dagoenean berriz, irudimena martxan jarri eta «semana fantástica» «quinceda de oriente» eta antzerakoak asmatzen dituzte.

Garai batean ilargia eta urte sasoiaren arabera antolatzen zen denbora, orain berriz, erregela komertzialen menpe gaude erabat. Oraindik eguzkitan kixkaltzeko moduko beroa egiten duela? Berdin dio!

Martxan da neguko kanpaina, beraz, jertse potoloa, kazadora eta bufanda erosi beharra daude eta armairuan eduki pixka batean, egokitzapen fasea gainditu dezaten: ateratzen ditugunerako agian modaz pasata egongo

dira eta orduan, etsi-etsian merkealdietara jo beharko dugu, faxion izaten jarraitu nahi badugu behintzat.

Martxa honetan geure karnete-an jaiotze eguna, hilabetea eta urtea agertu beharrean, zein kanpaina komertzialetan jaio ginen agertuko da: Juanita Juanitarena, 2008ko udazkeneko bigarren merkealdietan jaioa, esate baterako.

Eguberrien istoriora itzuliz, esan beharra daukat, operazio komertzial handiena izaki, benetan arduraturik naukatela: baina, zer egin gabonetako izpiritu horrek harrapa ez gaitzan?

Ez da lan erraza gero! Esan bezala; onena, irla desertu batetara ihes egitea baino ez al da «temporada alta» bidaia ajentzian? Puff! Uste dut aurtengoan ere harrapatuta nagoela!!

## Tolosa Goxuak eta Santu Guztien Eguna animatu dute azoka

**Azoka** » Honetaz gain, azken astetan bezala, onddo aukera zabala izan zen eta barazki ugari ere ikusi genituen.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso beteaz izan zen. Alde batetik Tolosa Goxua azoka berezia ospatzen zen, eta honekin, postu asko jarri ziren Triangulo plazan, denetarik zegoela. Txokolata, pastelak, tartak, opilak, gailetak edo eta likoreak beste arteen. Askok izan ziren postuetatik pasa zirenak galdezka eta erosteko asmoarekin.

Bestetik, Berdura plazan Santu Guztien Eguna gainean dugula eta, apaingarriko postuetan zentru eta lorontzi pila bat eskaini eta saldu ziren. Aukera oso irekia zen; zentruak adibidez 20 eurotik gora zeuden, eta esan zigutenez, gehienek modelu xumeak aukeratu zituzten.

Hori dena gutxi balitz, Zerkausian ikusitako zerrenda oso zabala suertatu zen. Onddo eta perretxiko asko, batzuk mundialak, baita mainan, baita usia eta freskotasunarekin; barazki asko ere bai, denanegokoa, eta fruta zerrenda oso zabala, errezil sagarra nagusi zela.

### » ATZOKO AZOKA

**BERDURA PLAZA** Merk. Gares.

Landareak		
Azalea	7,00	10,00
Erroneroa	4,00	6,00
Zainzuria	2,80	-
Dipladenia	10,50	-

### » BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Onddoak	10,00	30,00
Lanperna	20,00	-
Onddoak potetan	9,00	-
Ziza horia	10,00	-

### » Fruta

Kivia	3,50	-
Gaztaina	3,00	-
Intxaurra	2,50	4,00
Irasagarra	1,00	-

### » Barazkiak (sorta)

Ziazerba	1,00	-
Tipula	0,80	1,00
Espinaka	2,00	-
Porrúa	1,00	4,00

### » Barazkiak (kiloa)

Babarrun berria	12,00	13,00
Ibarrako piparra	3,00	-
Tolosako babarruna	10,00	12,00

### » PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Mermelada	3,00	3,60
Arroza	1,90	2,00

## A Argazki zaharra



## Txintxarriren historiari errebasoa

**ALEGIA** » Pasa den asteburuan Abesbatzen Topaketak ireki zuen 41. Abesbatzen Lehiaketa. Bertan euskal ordezkaritza bakarra hartu zuen parte eta ez nolana hiko gainera, Alegiako Txintxarri Abesbatza aritu baitzen emanaldia eskaintzen. Txintxarri abesbatza 1960. urtean sortu

zen eta hemen bildu ditugu bere historiaren argazki batzuk, irudietan Joxe Gastesik idatzitako liburitik. Gaur amaituko da 41. Abesbatzen Lehiaketa, sari banaketarekin. Txotxongilo jaialdiak hartuko du lekukoa hilabete honetan. TXINTXARRI ABESBATZA 1960-2000 LIBURUA (JOXE GASTES)

## Z Zurea da hitza

info

### Erdizkako kontratu bat

Ordiziako kronikan ikusi dut eta Tolosarako ere egokia iruditu zait irtenbidea: herriaren erdialdeko kaleetan *vañoa* (pasabidea) dutenei aukera ematea, erdibideko kontratu bat egiteko Udalarekin: pasabideagatik, besteen erdia ordainduko lukete eta asteburuetan libre legoke erdizkako pasabide hori duten garaje eta atearen aurrean aparkatzea. Zer iruditzen zaizue? **Joxemi**



Urtero bezala, Abraham Olanoren aldeko herri trabesia antolatuta zuten. HITZA

### Giro goxoa Olarraingo jaietan

Azken asteburuan, giro etxekoi eta goxoa ospatu zituzten Olarraingodunak. Larunbateko afaria, trikitiarekin nahiko dantza egin ostean, goizeko ordu txikitari batxurizoparekin amaitu zen.

Igande goizeko mendiko bizikleten trabesia, ohi bezala, lagun arte giroan burutu zen. Hamaiketakoaren ondoren ume-jolasek alaitu zuten elkartearen aurreko plaza-txoa. Ondoren, auzokideen arteko bazkaria, Trikitilariak eta bertso-

riek alaitua. Bertso-saio paregabea gozatu ahal izan genuen Unai Muñoz eta Bixente Gorostidirekin. Ilunabarrean, oraindik bazen festan jarraitzeko adorea eta indarra zuenik ere. Gehienok, nekatu samar hiru eguneko jardunarekin, etxerako bidea hartu genuen.

**Xabier**

### Anoeta eta Irura bitartean bidegorrian argirik ez

Bidegorri sare osatua dago orain Tolosaldean. Eta askotan erabiltzen dut buelta bat ematera joateko. Gustua ematen du lekua izatea, baina hemendik eskatu nahi dut

Anoeta eta Irura arteko zatian ondo argiztatzea. Ez dakit non ardura den baina ez dago argirik eta arriskutsua jartzen da garai batetik aurrera.

Milesker.

**Iban**

### Zer egiten ari zarete San Martinen?

San Martin (Amezketan) parke naturalaren barruan aurkitzen dela behin eta berriro errepikatzen duzue eta horrek obrak, etxeak... egitea mugatzen duela baina zuen kasuan ez ezta? ze lehen landatuta zeuden zuhaitzak ipurditik atera eta lurrezko mendi tontor bat erai-

ki duzue bertan 80-100 bizigabeko zutabeakipintzeko. Ai baina gauza gehiago dago hemen ezta? zutabe horien egilea, Guillermo, alkatearen etxean dago errentan, alkatearen iloba Guillermorekin ari da lanean,... hau entzunda denak zentzu gehiago du agian ezta; interesak daudenean denak balio du baita San Martin desitxuratzeak ere.

**Amezketar bat**

### Tolosako aparkalekuena, jasanezina da

Askotan ikusi dut Hitzan honi buruzko kritikak baina gaurkoa [atzokoa] azokan lotsagarria izan da. Jende pila bat bildu da Tolosan, normala da. Oso gauza polita izan da. Postuak, txokolatzeko tableterena, ohiko azoka, abesbatzetako kideak ere paseoa,... Gustatu zait giroa. Egia esan nire kanpoko lagunek beti esaten didate «joe, Tolosan beti daukazue zerbait» eta arrazoirik ez zaie falta.

Baina ez du ezertarako balio gauzak antolatzea gero jendeak aparkatzeko balabarak egin behar baditu. Bai, badakit zer esango dute, parkin berrik badaudela. Gaur hor sartu dut (Tolosako OTA

txartela daukat baina hamar mila buelta eman ondoren ez det izan beste erremediorik). Hiru orduz izan dut hor kotxea eta 4 euro pasatxo ordaindu behar izan dut. Doostian egongo bagina ere!

Hasi serio pentsatzen irtenbideren bat, bestela, Tolosako mugimenduguztiadesagertu egingoda.

**Peio**

### Abesbatza lehiaketaz...

Lehiaketak 41 urte ditu eta nik 42. Niretzat maldizio bat izan da txikitatik. Kantu korala munduan den gauza haspergarrietakoa iruditzen zait. Oraindik ere Francoren garaiko kutsu zuri-beltzeko bat hartzen diot muntaia guztiari, pixka bat kasposoa. Jakina: inoiz ez naiz joan bertan ikustera. Hori bai: tabernak ordubete gehiagoz zabaltea eta neska berriak ikustea ondo dago. Gure garaian, bazuten fama koruetako neskek *estretxa* xamarrek izatekoa baina horren kontrako testigantzak ere izango dira dozenaka herrian. Eainor animatzen den anekdota hoiek konpartzera: abesbatzei buruz daukagun iritzia baino interesgarriagoa izango da, inondik ere!

**Peio**

# Urrutiko intxaurrak 14...

## » Iritzia

Ramon Olasagasti  
Kazetaria

Mendiari buruz idazten jardun naiz 1994az geroztik Euskaldunon Egunkarian lehen-bizi eta Berrian gero. Azken bizpahiru urteotan urrunagotik bizi izan dut mendiko albisteen zurrunbiloa, baina aurten Alberto Iñurrategik, Juan Vallejo eta Mikel Zabalzak Everesteko Hornbein korridorean egindako ahalegina menditik bertatik kontatzeko zoria izan dut. Solasaldiak, hausnarketak eta eztabaidak asko izan dira kanpaleku nagusian: himalayismoaren bila-kaeraz, igotzeko estiloiei buruz,

soka, sherpa eta oxigenoaren erabilpenaz...

Harri eta zur utzi gaitu Juan Vallejo espedizioaren blogean ([www.basqueteam.com/hornbein09](http://www.basqueteam.com/hornbein09)) idatzitako *SOS Shisha Pangma* gogoetak zenbat hauts harrotu duen. Juanek, funtsean, zioen ez zaiola egokia iruditzen Shisha Pangmako hego-mendebaldeko horman, britainiarren bidean zehazki, sokak finkatzea. Doug Scott handiak, Baxter Jonesek eta McIntyre era alpetarrean, sokarik eta kanpaleku finkorik jarri gabe, azkar eta arin egin zuten igoera, duela 27 urte jada, baina gerozko urteotan, ordea, espedizioaren batek edo bestek, bai, finkatu izan ditu sokak, eta aurten ere halaxe egin du talde batek.

Iduri du, beraz, historian aurrera beharrean atzera egiten dela zenbaitetan.

Sebastian Alvaro *Alfilo delo imposible* saioaren sortzaileari irakurri nion aurrekoan zortzimilako mendiak sokaz josita daudela, sherpa eta oxigeno botila gehiegi erabiltzen dela, bide batzuetan ezinezkoa dela bakarrik egotea... Nikuste nuen oxigenoaren erabilera Everestera eta gehienez K-2ra mugatzen zela, baina Iñurrategik, Vallejo eta Zabalzak argitu zidatenez, zortzimilako gero eta gehiagotan erabiltzen da, erruz erabili ere. Gailurreraino sokak finkatzea ere ohikoa da, eta lan hori, ia gehienetan, sherpek egiten dute. Aspaldi esan zuen Mari Abregok zortzimilakoak super-

merkatu bihurtzen ari zirela, dena eros zitekeela bertan, baita gailurra bera ere.

Urteen joanean, esango nuke ugaritzen joan direla ohiko bideetako igoerak. Gaur egun nekez ikus daiteke Jose Luis Zuluaga *Zuluk*, Kike de Pablok, Jose Carlos Tamayok eta bestek 1980ko hamarkadan eta 1990ekoan egiten zituzten espedizio haien gisakorik. Bide berriak esploratzen, beste batzuek zabalduetako bide dotoreak errepikatzen saiatzen ziren haiek. Azken urteotan, berriaz, ezarian-ezarian, gailurra jotteak, mendia igotzeak hartu du lehentasuna. Eta horretarako, ohiko bideetatik igotzea, sokak goraino jartzea... izaten da egokiena. Ez da dago ezer txarrik horre-

tan, gauzak diren bezala kontatuz gero, betiere.

Egun, zortzimilakotan neurtzen da mendizale baten maila. Zenbat dituzu? galdetzen du jendeak, kopuruak adieraziko bala bezala nor den mendian. Gutxi galdetzen du zein bidetatik igotzeko asmoa duzun edo nola. Gainera, iduri du ez dagoela zortzimilakoak besterik. Inork gutxi daki Changi Tower, Amin Brakk, Shipton Spire, Mazeno Peak, Bhagirathi eta beste hainbat mendi non dauden, nahiz eta euskal mendizaleek jarduera ederrak egin izan dituzten seimilako eta zazpimilako haietan. Himalaya 14 menditara mugatu dugu kaskik eta batzuetan iruditzen zait zortzimilakoan inguruan komunikabideetan sortzen den harrabotsarekin urrutiko intxaurrekin gertatzen den gauza bera gertatzen dela. Gerturatu eta...

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

# Sari banaketa, gazi-gozen eguna, gaur

**Kultura** » Gaur amaituko da 41. Abesbatza Lehiaketa; 11:00etan hasiko da amaierako ekitaldia eta sari banaketa; Leidorren izango da.

## ERREDAKZIOA

Sssssssss... Erabateko isiltasuna zabalduko da gaur eguerdian Leidorren. Korrika, Abesbatza Lehiaketako kartelak kendu eta betiko zinemakoei tokia uzteko ordua izango baita. Eguerdian amaitutako jaialdiari, arratsaldeko zinema saioak hartuko baitio lekukoa.

Baina, oraindik ere, lehiaketako unerik garrantzitsuen iristeko dago. 11:00etan Leidor antzokian ospatuko baita lehiaketako amaiera saioa eta sari banaketa. Ekitaldiari *Agur Jaunak* abestuz emango diote bukaera. Ondoren, 14:30ak aldera abesbatza parte-hartzaile guztiak Ferialekuan elkartuko dira, bazkaltzeko.

Jaialdiari amaiera, «hasiera»

eman zitzaion toki berean emango zaio, hau da, San Frantzisko elizan. Urriaren 24an Abesbatzen Topaketak egin ziren bertan, Txapelketaren aperitibo gisa, eta orain, abesbatza zaleen azken egarrira asetzeko, toki berean, Japoniako Yuuka Choir-en emanaldia izango da. Saioa 19:00etan izango da.

## Leidor haurrez beteta

Atzo haurrak izan ziren eszenatoki gainera igotzen lehenak. Hauek beraien adineko publikoa erakarri zuten eta entzuleen zati handi bat, adin txikikoa zela esan daiteke. Hauek, beste saioetakoak baino exijenteagoak izan ziren, eta ez zuten zalantzarik izan gustatzen ez zitzaiea adierazterakoan.



Txekiar errepublikako Ondrasek Children's Choir eta Moldabiako Lacrymosa Children's Choir. E. EZBIZA

## Beso uhintsuak, uraren besotik



### » Iritzia

**Migel Zeberio**  
Koru zuzendaria

**G**ozogilez tunturka zegoen kale-arteko feriatik, goxoki gehiago dastatzera sartu ginen antzokira. Kanpoko eguzkiak, barruan ere berotu zuen gogotik. Beste saioetan ez bezala, haur ugari zen entzulegoan. Horrelakoetara maizago eramanik, mesede galanta egingo genieke, bertan jasoko baitute irakaspene probetxuzkorik. Gaztetxoan aisia, jolasaz

gain, bestelako aktibitateetan garatu daitekeelaren seinale. Ikastola edo musika eskoletan jaso dezaketaren osagarri nahitaezkoa da zuzeneko kontzertuetara joatea.

Umeek, ekitaldian zehar intuzioz epaitu zuten kalitatearen barometroa, hutsik egin gabe. Artea, finean, unkitzeko gaitasunean oinarritzen da eta. Haurren koruekin lan egiteak, lan eskerga eskatzen du, baina aldi berean eskaintzen du beste edozerk baino esker hobea, esku zabaltsunean neurri gabeak dira eta. Korua lantzeko ikuspuntu desberdinak islatu zituzten bost taldeok. Jakina da, beraien baliabideetan, aldeak izango direla, baina horiek jakiterik ez daukagunez, txalo barometroaren zenbait parametro aztertzen saiatuko naiz.

Bi talde txekiarrek, parekotasun tekniko nabarmenak zituzten. Ahoskera eta arnasketa oso landuek, afinazio baliabide prestuak eskaintzen zizkieten. Jardueran nahiko natural azaldu ziren eta biek emanaldiak aurrera egin ahala, tentsio gehiegizkoak utzi eta gozatzeari ekin zioten. Guzti honen mesedeak, testuen esanahien eta expresioaren mugak ezartzen dizkie. Musikaren materialitateetik emozioetara, parekotasuna bilatzea lan zaila da.

Moldabiarrak aldiz naturaltasun erabatekoan egin zuten kantuan. Goxotasunean irabazitakoak afinazioa zuen muga. Hala ere ederrak ziren beren kanten irakurketak.

Kataluinar musikagintza ere, pauso sendoz ari da garatzen eta ho-

rren erakusle izan genituen San Cugatoko neska-mutilak. Alberto Grauren obra batekin borobildu zuten entzunaldia, bertan basoko mamuen artean, gorputz osoko mugimenduez, indartsu bereganatu gintuzten, aukeran zuzendaria soberan zitekeen.

Rigako neskek eskaini zuten ezustekoa. Ahoa irekitzerako, iradoki zuten zer etor ziezagukeen. Eskainitakoa ez zen perfektutasuna, baina bai maitakorra. Eva Ugalderen *Uraren Besotik* obra, bigarren aldiz entzun genuen eta oraingoan ere erakutsi zuen zein era efektiboa idatzia dagoen, esker onekoa berara. Azken txanpan, bikainki, konfiantza gehiago hartu eta, dinamika pausatuta eta zabaletan, errezeratu zituzten R Vintule eta M Kocsas-en

obra bana. Zuzendariaren beso uhintsuek eskatzen ziotenari erantzuten zioten neskek. Zoragarriak jaso genituen kolore aberatsak. Hala ere entzulegoaren erantzuna.

Kronikatxoaren amaieran, entzun berri dudana Japoniako Yuuka Kamera Koruari buruz aipamena egitera behartua nago. Berauek lirak aurtengo irabazleak eta. Egitarau osoa kategoriazko mailakoa bederen. Hiroki Fujii maisuak lortzen du obra bakoitzeko tentsioa, hasieratik bukaerara, bateratasunean mantentzea. Esaldien arteko arnasak lotura bilakatzen ditu. Victoria, Bello, Rheinberger, edozer menden hartu eta hunkigarri bihurtzen dute. Amaitzeko: T Niimi ren Hego alde-tik betikotasunera izenburuarekin lotzeko gauzik itzalenean pentsatu eta asmatzea zail egingo litzaguke. Zirrara trumoiatsu erraldoi baten antzeko zerbaitekin dute; gutxitan entzundako sentsazioa.

Ahotsik ederrenen atzean ere, kutxa dago.

**Tolosako 41. Abesbatza-Lehiaketa**  
Urriaren 28tik azaroaren 1era

Urtero bezala, gure **Gizarte Ekintza**ren bitartez, aurtun ere laguntza ematen diogu **Tolosako Abesbatza-Lehiaketari**, beronen 41. Edizioa babestuz, gure herriaren **musika, kultura eta balioak** zabaltzearen.

zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

**kutxa**

gizarte ekintza

kultura



Haurrak izan ziren txokolatea dastatzeko aukera izan zuten lehendabizikoak; mota guztietako gozoak aurkitu zitezkeen gozotegiak Triangulo plazan jarritako postuetan. E. EZEIZA / E. MAIZ

## Gozozaleen paradisua

**Kultura** » Milaka lagun hurbildu ziren atzo urteko azokarik gozoenera; ekitaldien artean, ikusmin handiena txokolate tableta erraldoiak sortu zuen.

### ESTI EZEIZA

Gozozaleen eta bereziki txokolatezaleen paradisu izan zen atzo goizean, Tolosa. Milaka lagun hurbildu ziren eskualdeko hiriburura, urteko azokarik gozoenaz gozatzera.

Ekitaldien artean, txokolate tableta erraldoia izan zen ikusmin

handiena sortu zuena. 200 kilotik gora pisatzen zuen gozoa egin zuten Tolosako gozogileek. 09:00ak aldera hasi ziren prestatzen dena, eta 12:00ak alderako amaitu zuten. Gorrotxategiko, Eceizako, Gorostiko, Gozonako eta Saizarreko gozogileak izan ziren jaki preziatuaren egileak. Honetarako, Natra-

Zahor etxeak emandako txokolatea erabili zuten. Hiru osagai besterik ez zituen tabletak: kakaoa (%60), manteka eta azukrea. Haurrak izan ziren gozoa probatzen lehenak, hauek ezinegon handiz jarraitu baitzuten prozesua.

Tabletari buelta ematea izan zen prozesuko atalik zailena, kontuz-kontuz ibili ziren gozogileak, hau apurru ez zedin. Atzoko egurraldi ona, lagungarri bezala, oztopo ere bihurtu zen. Izan ere, alde batetik, txokolatea egiteko garraian, hau ez bustitzea ezinbesteko baldintza zen, baina bestetik, hozteko, denbora eta hotza ere behar zuen txokolateak. Hala, eguzkiak bizi jotzen zuenez, haizagailuak ipini zituzten, postrea gogortzen joateko.

Behin txokolatea eginda, eta jendeak ikusteko moduan denbora batez eduki ostean, mailuak hartu eta milaka zatitan banatu zuten

tableta. Hasiara batean, 2.015 zati egitea zen asmoa, baina azkenean, beste modu batera egin behar izan zuten.

Hemendik aste batzuetara ikusiko da orain, Tolosako txokolate tableta erraldoiak Guinness-etan sartzen den edozein. Udalak eskaera egin du jada, baina egun batzuk itxaron beharra dago erantzun jasotzeko.

### Mota guztietako gozoen erakustoki

Tolosako gozotegiak nahiz kanpokoak kalera atera ziren atzo, beraien jaki preziatuenak erakustera. Santu Guztien Egunaren bezpera izanda, gozotegi bakoitzeko bereizgarri diren jakiez gain, Santuen hezurak, kruxpetak, Errege opilak... aurkitu zitezkeen postuetan.

Aurtengoa azoka nazioartekoa izan dela esan daiteke. 41. Abes-

batza Lehiaketa ospatzen ari dela kontuan hartuta, parte-hartzailetako batzuk, Triangulo plazara hurbildu baitziren, gozoen usainari jarraituz.

Sagar tarta lehiaketa herrikoia ere egin zuten atzokoan. 10 lagunek hartu zuten parte eta horietatik bik lortu zuten saria. Lehendabizikoa Lorea Mendizabal ibartarrentzat izan zen, eta bigarrena, Pasaia Donibaneko Ramon Aginagarentzat. Lehendabizikoak, Tolosako gozotegietan gastatzeko 200 euroko balioa duen saria eraman zuen, eta bigarrenak, 150 eurokoa.

Eskualdeko nahiz kanpoko jendeak hartu zuten parte lehiaketan. Balentziar batek eta suizar batek ere aurkeztu baitzuten euren tarta.

Txokolatea eta sagar tartak ez ezik, txurroak ere jan zituzten atzo, Tolosako txurrieriak bezeroen artean banatu baitzituen.



10 sagar tarta aurkeztu zituzte lehiaketara; gozogileak lanean. E. EZEIZA

Zure negozioa ulertzen dugu



Ibilgailu Komertzialen  
Gama



**TOLOSA MOTOR, S.A.**

San Esteban auzoa, 14 - A • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38 • e-mail: tolosa.tolosa.redpeugeot.com



## Kaleetan barrena abestuz, giroa goxatzen

**TOLOSA** ● Hileko azken larunbat guztietan bezala, atzo ere, Tolosako Alde Zaharreko kaleetan ibili ziren Tolosa Kantariko kideak. 12:00etan Tontokale deituriko kaletik abiatu ziren eta Triangulon ere beraien geldialdia egin zuten euskal abestiak abesteko. Atzoko kantuji-ran Tolosako Txistulari Bandakoen laguntza izan zuten. Ekimen hau, joan den urteko ekai-nean hasi zuten eta gozotik hilerro gauzatu da hutsik egin gabe. **E.MAIZ**



## Gaur hilerriak lorez jantzita esnatu dira

**GIZARTEA** ● Azaroak 1, Santu Guztien Eguna bezala ezagutzen dugu eta beste askorentzat berriz, jai eguna da. Urtean guztian oroitzen badira ere, gaurko eguna, ondoan falta diren familiako kideak edota adiskideak gurtzeko baliatzen da. Hori dela eta, ohitura handia dago, loreak erosi eta hildakoak ditugun lekuetara joan eta loreak eskaintzeko, aurreko egunetan ere nabaritzen da mugimendua. Atzo, itxura hau zuen Berrobiko hilerriak. **E.MAIZ**

**Elduain** » Asto Egun arrakastatsua ospatu zuten elduaindarrek. Mugara iogoera, zaldiak, herri kirolak eta diskojaia izan zituzten.

# Asto festaren baitan, herriko astoa afaltzeko, 130 lagun bildu ziren

### ENERITZ MAIZ

Atzo, Elduainen Asto festa ospatu zuten. 16:30ean apustuarekin hasi eta goizeko ordu txikiak arte, jai giroan igaro zuten eguna.

Mugara iogoera, zaldi gainean ibilaldiak, herri kirolak, herri afaria eta bukatzeko diskojaia izan zituzten.

### Denbora ezin hobetu

Jose Luis Artola amasarra saiatu zen Mugako tontorreko denbora hobetzen baina ezin izan zuten. Le-

hengo denbora, 19 minutu eta 10 segundoan egin zuten, erretildar batek eta atzokoan, 21 minutu eta 47 segundoan egin zuten Mugarako iogoera.

Behin iogoera eginda, txikienek zaldi gainean ibiltzeko aukera izan zuten herriko plazan, ibilalditxoak eginez. 18:00ak paseak zirela, herri kirolen erakustaldia izan zen; txingak, trontza, ingudea, kokkolak eta korrika egin zituzten. Bataren eta bestearen aldeko animoak eta oi huak ez ziren falta izan. He-



Afaldu aurretik, herritarren arteko herri kirolak egin zituzten. **E.MAIZ**

rritarren artean, bi talde osatu zituzten, zuriak eta beltzak. Bitartean, frontoian bertan, astoa erretzen zeukaten.

Jarraian, herri afaria izan zuten eta egunak dioen moduan, *Asto*

*festa* ospatzen zuteneguz, menuan, astoa izan zuten afaltzeko. 130 pertsonak izan zuten aukera herrikoia zen astoa dastatzeko. Zehazki, Errekalde baserrikoa izan zen astoa. Behin sabela ondo beteta, goi-

zalderrate jai giroa izateko diskojaia izan zuten herriko frontoian.

### Santu Guztien Eguna

Bestalde, gaur, Meza Nagusia izango dute 09:45ean Santa Katalina elizan eta ondoren lore-eskaintza izango da hilerrian. Bukatzeko urtero bezala hamaiketako banatuko dute Urdelar biltokian herritarrentzat.

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Garajea.** Autokarabana gordetzeko, garaje edo pabilioi baten bila nabil. Alokairuan. Interesatuek, deitu 653 74 05 11 telefono zenbakira.

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 2. alea

**200 ERREZETA**  
IRUZURRIEN  
ERREZETAK  
EUSKARAZKO

**berriaren**  
harpidedun eta irakurleek  
erdi prezioan **12€**

Bete ezazu **urriaren 18tik 31 bitartean** BERRIAN argitaratuko den **erreserba kupoia** eta utzi zure kioskoan **azaroaren 8a** baino lehen.

BI ASTEREN BURUAN KIOSKO BEREAN JASOKO DUZU LIBURUA.

Laguntzailea  
**FAGOR**  
www.fagor.com

Aukereta ezazu,  
BIZI EUSKARAZ  
**berria**

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**JOXEMI SAIZAR**

**J**oan zen urriaren 22an hil zen Madrilén Pedro Maria Arsuaga tolosarra, 82 urte zituela. Real Madriléko futbolaria izan zen 1946tik 1953ra aurrelari modura ezker aldean, 65 partidajokatuz eta 20 gollortuz.

Uda honetan Real Madrilék Xabi Alonso fitxatu duela eta, talde horretan lehendik ere futbolari tolosarrak bazirela gogoratzeko (Eugenio Hilarrio, Daniel Calleja, Narro, Candido Urretabizkaia...), HITZAK elkarrizketa bat eskatu zuen Arsuagarekin. Senitartekoek gaixo zegoela baina galderak pasaz gero, beraiak helaraziko zizkiotela erantzun zuten. Hala egin zen, baina elkarrizketa argitaratu baino lehen hil da futbolari ohia. Bere azken esanak jasoko ditugu erreportaje honetan.

Pedro Mari Arsuaga Egizabal Tolosan jaio zen 1927ko urriaren 19an. Txikitandik nabarmendu zen hainbat kirolatan, batez ere pilotan eta atletismoan, 15-16 urterekin bi kross irabazi zituen. Futboleantzatzen 12-13 urterekin hasi zen Eskolapioetan, Calasancio taldean. 15 urterekin Tolosanan jokatzen zuen eta geroreago Tolosa CFn, 3. mailan. Baina urtebete bakarrik egin zuen, Real Madrilék fitxatu baitzuen 1946an. «Tolosan nirekin jokatutako asko ez ditut gogoratzen: Josetxo Uria, Horacio eta Angelito Etxeberria bakarrik», zioen hil baino egun batzuk lehenago Hitzak egindako elkarrizketan. «Real Unionen jokatutako Ganborena Real Madriléko ikuskatzaile lanetan ari zen Euskal Herrian. Hark gomendatuta fitxatu ninduten, 100.000 pezeta ordainduta lau urteko kontratorekin», zioen. Bartzelona ere interesatuta

Lehen Mailan, Real Madrilén eta Racing Santanderren jokatu zuen 1940-50 hamarkadetan; hil baino egun batzuk lehenago HITZ Ari eman zion elkarrizketan esandakoak jaso ditugu erreportaje honetan.

# Arsuaga futbolaria hil da



Pedro Maria Arsuaga Egizabal Real Madriléko kamisetarekin. HITZA

zegoen, baina Quincoces ospetsua aurreratu zitzaion. Berarekin batera Narro eta Daniel Calleja tolosarrak ere Madrilera joan ziren. Eta Felipe Martínez Bartzelonara eta Juanito Jauregi Realera.

**Gentoren aurrekoa**

Real Madrilén Valentzian debutatu zuen, 4-1 galduz, eta zazpi denboraldi egin zituen, 1954 arte, horietako bat Granadara utzita, Alfredo Di Stefano fitxatu zutenean 1952-53n. Honen aurkezpen partiduan jokatu zuen. Granadan urte batzuk lehenago beste tolosar bat egon zen: Txolin Alkorta, aurrena jokalaria bezala eta gero entrenatzaile. Madrilgo etapa bukatu zutenean (Paco Gento ospetsuak bete zuen bere postua) Santanderrera joan zen, Racingen jokatuz beste hiru urte, «oroitzapen ona» izanik. Futbolari bezala, oroimen onena 1952ko azaroan Ramallets-en Bartzelona ahaltsuari 2-1 irabazi ziotenean zeukan: «Nik sartu nituen bi golak. Bata kornertetik zuzenean». «Bitxikeria moduan, esango dizut Argentinako selekzioarekin jokatua naizela, elkartasunezko lagunarteko partida batean taldea osatu ahal izateko hartu nindute-lako», gogoratzen zuen.

**Seme ospetsua**

Madrilgo bizimodua «futbola eta ikasketak» izan zirela zioen. Bide

ingeniaritza hasita zuen Donostian, «baina zailegi zen hura futbolarekin bateragarri egiteko eta ikasketak ez hain zailak egitea erabaki nuen: Ekonomi Zientziak». Futbola utzi eta gero Galdakaoko Coplastica enpresan sartu zen, 1954tik 1970 bitarte. Bilbon bizitu zen garai hartan eta orduan jaio zen Juan Luis semea, gaur egun antropologo ospetsua Atapuercan (Burgos) egindako indusketengatik. Semearen karrera «edozein atak izango lukeen ilusio berarekin» jarraitu zuen. Gero Explosivos Rio Tintok erosi zuen enpresa eta Madrilera aldatu zuten berriro, eta berarekin familia osoa, noski. Filologia Semitika ere ikasi zuen, arabiar sailean. Madrilén bizitu da aurrekoan hil arte.

Erretiratu ondoren, futbolarekin ez zuen «oso harreman hestua», ikusle modura jarraitzen zuen, Real Madriléko jokalaria ohi gisa sarrera zuelako Bernabeuko palko batean. Euskal futbol taldeak jarraitzen zituen: «Duela urte batzuk, Tolosa 3. mailan zegoela, Madrilera etortzen zenean jokatzeran, han izaten ginen semeak eta ni Tolosa animatzen. Getafen, esate baterako. Lehen aldiz joan ginenean gainera harrituta geratu ginen bertako ikusleek Tolosanolan animatzen zuten ikusita. Gero konturatu ginen urdinak Getafekoak zirela», kontatzen zuen.

Bere garaiko eta gaur egungo futbol konparatzean, astean bitan baino ez zutela entrenatzen aipatzen zuen, eta gaur egun eguneroko eta prestaketa fisikoko gogorragoa eginez. «Futbolaren inguruan mugitzen den diru kopurua» ere oso desberdina dela zioen. Gaur egun Bartzelonan egiten duen jokoa gustatzen zitzaion gehien.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@irragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Orexa.** Kultur Hamabostaldia: 09:30ean Uitz-i-Orexa ibilaldia eta 14:00etan herri bazkaria Eneritz eta Edurne trikitilariekin.  
■ **Ikaztegieta.** AHTren aurkako mendi marxa: 10:30ean Ikaztegieta tren geltokitik abiatuta: Aldaba eta Langaurre, geldialdi informatiboak eta 15:30ean Alegiagieta plazan bukatu.

### Zinema

■ **Tolosa.** *El secreto de sus ojos* filma Leidor aretoan igandean 19:30ean eta 22:00etan eta astelehenean (Ikuslearen eguna) 20:30ean.  
■ **Villabona.** *Los sustitutos* filma eskainiko dute Gurea zinemaren gaur 19:30ean eta etzi (ikuslearen eguna) 21:30ean. Eta *Vicky bikingoa* filma euskaraz eskainiko 17:00etan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
■ **Tolosa.** Ollarrea, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.  
**Bihar**  
■ **Tolosa.** Ollarrea, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

### » TELEBISTA

**28 kanala**  
**08:30.** Zahar berri **09:00.** Nonochan  
**09:30.** Tolosaldean Gaur **10:00.** Kalekantoit **10:30.** On ein! **11:00.** Sakonduz  
**11:30.** Tolosaldean Gaur **12:00.** Ikusmira 3 **12:30.** Triki traka torn **13:00.** Jarrapena **13:30.** Animalia **14:00.** Kafe t'erdia **14:30.** Gipuzkoa kultura **15:00.** Erloklip **15:30.** Wazemank **16:00.** Kliplak  
\*(12:30etik 16:30era bitarteko blokea lau orduko errepikatuko da).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

Atzo Orexako Kultur Hamabostaldian haurrentzako puzgarriak eta merienda eta 'Ate joka' antzezlanak izan ziren; gaur eguerdian herri bazkaria izango dute, baina astean zehar izango dira ekitaldiak.

# ... Eta oraindik beste astebete

### ERREDAKZIOA

**K**ultur asten hilabetea izan ohi da urria. Orexan ere ohitura bilakatu dute Kultur Hamabostaldia eta hone-tan daude murgilduta.

Atzo, esaterako, umeen txanda izan zen, puzgarrietan ibiltzeko aukera izan zuten lehenik eta ondoren txokolatea, txurroak eta opilak banatu zituzten guztion artean. Gauean, berriz, *Ate joka* antzezlanak ikusteko aukera izan zuten bertaratuek.

### Datozen egunetarako egitaraua

Gaur goizean goiz hasiko dira kultur ekitaldiekin. Uitz-i-Orexa ibilaldia egingo dute eta eguerdi partean herri bazkaria egingo dute Eneritz eta Edurne trikitilariekin. Datozen egunetan ere izango dira musika, hitzaldiak eta, nola ez, herri afaria.



Puzgarrietan aritu ziren etxeko txikienak; ondoren txokolatea, txurroak eta opilak jan zituzten. ENERITZ MAIZ

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Tomax Zubizarreta Galarza (Albiztur).** Bihar 2 urte. 4 aitona eta izeba Ainhoaren partetik 5 muxu handi.



### Urte askoan!

**Isabel Izeta Gurrutxaga (Tolosa).** Bihar 103 urte. Muxu asko familia guztiaren partetik zure 103. urtemugan. Animo eta segi beti bezain alai.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesede, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pare** du

41. ABESBATZA LEHIAKETA



Gaur Igandea 11:00etan  
**Abesbatzen emanaldirako:**  
sarrereri irabazlea:

◦ Juan Antonio Iraeta (Ikaztegieta)



sarrerak leihatilan bertan izango dituzue